

# Aniztasunean elkarbizitza sustatzeko aliantza Erreterian

## Prozesuaren deskribapena · [Bideoa](#)

Erreteriarako Udalak elkarbizitza eta herri-kohesioan mugarri garrantzitsu bat izango den herri-aliantza bat gauzatu nahi du, aniztasunean, eta herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean. Horretarako, abendura bitartean, diagnostiko parte hartzailea egiteko prozesu bat jarriko dugu abian; gaiaren inguruko diagnostikoa egiteko, alorka egiten dena balioan jartzeko, aurrera begirako erronkak zehazteko eta hartuko diren konpromisoak identifikatzeko.

Egitasmoaren lehen fase honetan, azaroan, Bernardo Atxaga idazlearen testuan oinarrituta, hausnarketa egingo dugu eta diagnostikoa osatzeko talde-lanketak egingo ditugu arlokako eragileekin. Halaber, diagnostikoa osatzeko saio ireki bat ere egingo dugu, hain zuzen ere, azaroaren 29an, Niessengo auditoriumena izango da arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Bertara herriko eragileek eta gaiaren interesa duen edozein herritarrek parte hartu ahal izango du saioan. Hona hemen arlokako lanketarako bilera-egunak:

ARLOA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
KULTURA ANIZTASUNA	Azaroak 9	13:00-14:00	Reina Aretoa
EUSKARA, KULTURA ETA JAIK	Azaroak 27	19:00-20:00	Reina Aretoa
KIROLA	Azaroak 30	18:00-19:00	Galtzarabordako polikiroldegia
BERDINTASUNA	Azaroak 28	19:00-20:00	Reina Aretoa
ONARRIZKO ESKUBIDEAK ETA PARTAIDETZA SAIO <b>IREKIA norbanakoentzat eta bestelako eragileentzat</b>	Azaroak 29	19:00-20:00	Niessen Auditorioa
HEZKUNTZA ETA GAZTERIA	Abenduak 1	10:00-11:00	Reina Aretoa

Diagnostiko-faseari amaiera emateko, abenduan, "familia-argazkia" ekintza baten bidez egingo dugu prozesuan parte hartu duten herritarrekin.

Ondoren, urtarriletik aurrera, atxikimenduen eta konpromisoen faseari ekingo diogu; eragile bakoitzak bere alorretik, eta duen ezagutza eta gauzatzen dituen ekimenak oinarri. Horrekin guztiarekin lortu nahi da etorkizuneko Erreteria kohesionatuagoa eta elkarbizitzari begira aberatsagoa izatea.